



2011KO MAIATZAREN SEKO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaikako maiatzaren bostean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Angel Hernández Marzal, Ricardo Crespo Rubio eta Iñaki Saldaña Herrero.

Xanet Barreras Jauregi eta Javier Moreno González de Lara zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2011ko otsailaren 24an egindako ohiko, martxoaren 17an egindako ez-ohiko eta apirilaren 26an egindako ez-ohiko bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 2 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onspen proposamena irakurri dira.

Alkateak esaten du kreditu aldaketa honetan garrantzitsuena, iazko gerakinarekin udalak kontratatuta daukan Kutxaren maileguaren amortizazio osoa dela.



Gaia eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 2 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
IV	Transferentzi arruntak	7.390,00 €
VI	Inbertsio errealak	1.459.176,00 €
IX	Finantza pasiboak	1.161.810,93 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		2.628.376,93 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
VII	Kapital transferentziak	1.534.176,00 €
VIII	Finantza aktiboak	1.094.200,93 €
GUZTIRA		2.628.376,93 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

IV.- 1 H.J.A. -C.A.F.-EKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALAREN FORMULAZIOA HASTEA.-

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. eta udal honen artean hirigintza hitzarmena izenpetu da. Hirigintza hitzarmen horren xedapenen artean Arau Subsidiarioetako 1 Hirigintza Jarduketa Arearen -C.A.F.- aldaketa puntuala barneratzen da.

Hau honela izanik eta Hirigintza Batzordearen proposamenez, udal osoko bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 1 Hirigintza Jarduketa Arearen -C.A.F.- aldaketa puntualaren formulazioa hastea erabakitzen du.



V.- ADMINISTRAZIO AUZIETAN UDALA BERTARATZEA.-

Donostia-San Sebastián-eko Administrazioarekiko Auzien 2 zk.ko Epaitegiak idatzia bidali du Udal honetara, José Ignacio Irastorza Larretak, María Pilar Irastorza Larretak, José Manuel Irastorza Larretak, María Milagros Irastorza Larretak, Juan Martín Irastorza Larretak, Jokin Irastorza Larretak eta Iñaki Josu Irastorza Larretak administrazio auzia tartearri dutela adieraziz. Aipatu errekurtsua 21 H.J.A.ren -"Kanpandegi-Amebi-Meandroa"- U.J.P. behin-betikoz onartzen zuen 2010eko azaroaren 12ko Alkatetzaren Ebazpenaren aurkakoa da.

Honen aurrean, Alkatetzak, 2011ko urtarrilaren 31n emandako alkatetzaren ebazpen bidez zera ebatzi zuen:

- 1.- Donostia-San Sebastián-eko Administrazioarekiko Auzien 2 zk.ko Eapitegira eskutako espedientearen egiaztatutako kopia foliatua bidaltzea.
- 2.- Espedientearen interesatu direnak enplazatzera, 9 eguneko epean errekurtsuan demandatu bezala bertaratu ahal izateko.
- 3.- Udala prozedimentuan bertaratzera, Jon Orue-Etxebarria Iturri abokatua izanik.

Halaber, lehen aipatutako epaitegi berak, beste idatzi bat bidali du José Ignacio Irastorza Larretak, María Pilar Irastorza Larretak, José Manuel Irastorza Larretak, María Milagros Irastorza Larretak, Juan Martín Irastorza Larretak, Jokin Irastorza Larretak eta Iñaki Josu Irastorza Larretak administrazio auzia tartearri dutela adieraziz. Aipatu errekurtsua 21 H.J.A.ren -"Kanpandegi-Amebi-Meandroa"- U.J.P. behin-betiko onarpenaren birjarpen errekurtsua onartzen duen 2011ko urtarrilaren 18ko Alkatetzaren Ebazpenaren aurkakoa da.

Honen aurrean, Alkatetzak, 2011ko apirilaren 27an emandako alkatetzaren ebazpen bidez zera ebatzi zuen:

- 1.- Udala prozedimentuan bertaratzera, Jon Orue-Etxebarria Iturri abokatua izanik.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, bi alkatetzaren ebazpenetan hartutako erabakietan berrestea erabakitzen du.

VI.- LAZKAOKO UDALA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ETA EUSKO JAURLARITZAREN ERREGISTRO DESZENTRALIZATU BIHURTZEA.-

30/1992 Legearen 38.4.b) artikulua arabera, herri administrazioei zuzendutako eskaera, idazki eta jakinarazpenak, estatuko administrazio orokorreko nahiz autonomi elkarrekin edozein organotako erregistroan edota toki administrazioerako erakunderen batean aurkez daitezke beti ere, azken kasu honetan, dagokion hitzarmena izenpetu bada.

Hori horrela, bai Gipuzkoako Foru Aldundiak bai Eusko Jaurlaritzak, udalek beraien erregistro deszentralizatu gisa funtzionatu dezaten hitzarmenak izenpetzea eskaini dute.



Honen aurrean bai Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bai Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmen hauek izenpetzea proposatzen da.

Serna zinegotziak (PSE-EE) galdetzen du ea honek ze eragin izango lukeen udalek, 2012 urtean, plataforma digitaletan bihurtzeko duten betebeharrarekin.

Alkateak erantzuten dio bi gauza direla eta batak besteari ez diola ukitzen.

Gaia eztabaidatu ondoren, osoko bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin eta beraz legezko gehiengo osoaren aldeko botuarekin, honako akordio hauek hartzen ditu:

1.- Lazkaoko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistro deszentralizatu gisa funtzionatzeko hitzarmena, bere espedientean dagoena, onartzea eta udalaren izenean hitzarmena izenpetzeko alkatea ahalmentzea.

2.- Lazkaoko Udalak Eusko Jaurlaritzaren erregistro deszentralizatu gisa funtzionatzeko hitzarmena, bere espedientean dagoena, onartzea eta udalaren izenean hitzarmena izenpetzeko alkatea ahalmentzea.

VII.- LAZKAOKO UDALAREN IDENTIFIKAZIO FISKALAREN KODEAN IZENA ALDATZEA.-

Alkateak esaten du Lazkaoko Udalaren identifikazio fiskalaren kodean azaltzen den izena Ayuntamiento de Lazcano dela eta hau Lazkaoko Udala izenez aldatzea proposatzen duela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) planteatzen du ea "Ayuntamiento de Lazkao - Lazkaoko Udala" ezin al liteken izan.

Alkateak erantzuten dio proposamena "Lazkaoko Udala" jartzea dela eta izen hori guztiek ezagutzen duten izena dela.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko zortzi botu (EAJ, Alternatiba), aurkako boturik gabe eta hiru abstentzioz (PSE-EE), eta beraz legezko gehiengo osoaren botuarekin, Lazkaoko Udalaren identifikazio fiskal kodearen izena "Lazkaoko Udala" izatearen proposamena onartu egiten du.

VIII.- BAKE EPAILEAREN AUKERAKETA.-

Lazkaoko bake epaile izateko bere nahia azalduz izena emandakoen artean, Lazkaoko Udalaren Osoko Bilkurak, 2010eko urriaren 28an egindako bilkuran, bake epaile titularretarako Mikel Begiristain Aranzasti eta ordezkoko bake epailetarako Iker Imaz Beldarrain aukeratzea erabaki zuen.

Mikel Begiristain Aranzastiren heriotza dela eta, bake epaile titularretarako lehen ordezkoko gisa aukeratu zena aukeratzea proposatzen da.

Osoko Bilkurak, aldeko zazpi botu (EAJ), aurkako hiru botu (PSE-EE) eta abestentzio batez (Alternatiba) bake epaile titularretarako Iker Imaz Beldarrain aukeratzea erabakitzen du.



IX.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO KON-PROMISOA: UDALSAREA 21.-

Udal honek, 2005eko azaroaren 24an egindako osoko bilkuran, "Euskal Autonomia Erkidegoko jasangarritasun Konpromisoarekiko Atxikipena" dokumentua onartu zuen.

Orain erabaki hau berritza planteatzen da.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, "Euskal Autonomia Erkidegoko jasangarritasun Konpromisoa" dokumentua eta dokumentuarekiko atxikipena onartzea erabakitzen du.

X.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN KUDEATUZ PROGRAMARA ATXEKIMENDUA.-

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2007-2011 legealdirako onartutako Kudeaketa Planak, denboraldi horretarako foru erakundeak dituen kudeaketa helburuak nahiz erronka estrategikoak ezartzen ditu. Halaber, planak ezartzen duenaren arabera, aurre egin nahi zaien erronkei eta herritarren arazoei erantzuna eman ahal izateko, beharrezko da kultura politika berri baten ikuspuntutik lan egitea. Hau da, gai publikoak beste era batera tratatzea, azken batean, hiru mailatan oinarritutako gobernantza eredu berri bat erabiltzea:

- Erakunde publikoen arteko buruzagitza partekatua.
- Lurraldeko erakunde eta eragileen arteko lankidetzak publiko-pribatua.
- Politika publikoetan herritarrek izan beharreko partaidetza eta inplikazioa.

Ildo horretan, 2007-2011 Kudeatuz proiektuaren barruan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eudelek lankidetzak hitzarmena izenpetu zuten 2008ko uztailaren 30ean lurraldearen gobernantza sistema hobetzeko helburuarekin eta, helburu hori lortzeko, programa batzuk jarri nahi dira abian, besteak beste, honako hauek:

Herritarrek udaletan parte hartzeko planak sustatzea.

- Herrietan politika publikoak ebaluatzeko planak sustatzea.

Guzti hau kontutan izanda Lazkaoko Udala Kudeatuz programara atxekitzea proposatzen da, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin horretarako hitzarmena izenpetuz. Hitzarmen honen baitan, Lazkaoko Udalak garatu beharreko proiektuak aukeratuko lituzke eta Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektuak garatzeko ekonomi kostuei aurre egingo lieke.

Hitzarmenaren eranskinetan, Lazkaoko Udalak garatuko lituzkeen proiektuak jarri behar dira eta hasiera batean honako hauek jartzea proposatzen da:

I Eranskinean.- Politika publikoen ebaluaketa.-

- Helburu orokorra: Herritarrek udal zerbitzu eta instalazioekiko duten balorazioa jasotzea.
- Helburu espezifikoak: Udal zerbitzu eta azpiegiturak hobetzeko herritarren iritzia ezagutzea.



II Eranskinean.- Parte hartze prozesua.-

- Helburu nagusia: udal azpiegituren oinarriak zehaztea eragile kultural eta sozialen laguntzaz.
- Helburu espezifikoak: errekurtsio ekonomiko eta eraikinen erabilpen efizientea lortzea.

Saldaña zinegotziak (Alternatiba) esaten ondo iruditzen zaiola era honetako ekimenak bultzatzea eta berak zabalagoa egingo lukeela, adibidez aurrekontuak egiteko prozesua hiritarren partaidetzarekin egitea.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du bera ere Saldañak esan duenarekin ados dagoela eta gai gehiagotara zabalduko lukeela prozesu hau.

Alkateak erantzuten die garrantzitsua programan sartzea dela eta orain behintzat hitzarmena izenpetzea. Gainera gauden garaian egonda, gaur onartzea proposatzen den hitzarmenaren baitan garatuko diren proiektuak datorren legegintzaldian garatuko direla eta hurrengo udalak aukeratuko dituela garatu beharreko proiektuak.

Gaia eztabaidatu ondoren, osoko bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin herritarrek erakundeetan parte hartzeko eta politika publikoak ebaluatzeko planak ezartzeari buruz lankidetzaz hitzarmena, bere espedientean dagoena, onartzea.
- 2.- Aurreko puntuan aipatzen den hitzarmena Lazkaoko Udalaren izenean izenpetzeko alkatea ahalmentzea.

XI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogeit gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

